

Oro har, diru-laguntza hiru alditan ordainduko da, honela:

Lehen ordainketa, diru-laguntzaren guztizko zenbatekoaren % 40ri dagokiona, honako dokumentazio hau jasotakoan eta egiaztatutakoan emango da:

❖ Erakunde eskatzaileari buruz:

- Bankuko datuen fitxa (ereduaren arabera)
- Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ordainketekin egunean egotearen ziurtagiria, ordura arte eguneratuak.

❖ Kontratutako edo kontratatu beharreko pertsonari buruz:

- Kontratutako edo kontratatu beharreko pertsonaren NANaren kopia.
- Kontratutako edo kontratatu den pertsona Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa (DARDE), gehienez kontratazioaren aurreko 5 egun naturaletan jaulkita.
- Inskripzio-aldiei eta lan-egoerari buruzko txostena, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak kontratatu ondoren edo, gehienez, kontratazioaren aurreko 5 egun naturaletan jaulkita.
- Langilearen lan-bizitzaren txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak kontratazioaren ostean egindakoa.
- Bilbon bizi dela eta berriazko kolektibo bateko kide dela egiaztatzen duen dokumentazioa, bidezkoa bada.
- Bilbao Ekintzak ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatze eskatzen duen beste edozein.

Aldeko ebazpena jakinarazi ostean, baldin eta kontratazioa hasteko epemuga gainditzen ez bada, erakunde onuradunak, gehienez ere, **35 egun natural** izango ditu kontratazioa gauzatzeko, eta, bideragarria ez bada (inguruabar hori behar bezala justifikatu behar da), kontratazioa hasteko epe hori zabaltzeko aukera balioetsi ahalko da.

❖ Kontratazioari buruz:

- Behar bezala sinatutako eta betetako pertsonaren lan-kontratuaren kopia, baita Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari kontratu horretaz egindako komunikazioarena ere.
- Langilea Gizarte Segurantzari alta emanda dagoelako aitortpena.
- KDT, kotizazio-datuen txostena.

- “Alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena” izena duten bi txosten, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak igorrita (dokumentuak elektronikoki bidaltzeko sistematik lortutakoak, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden enpresaren lan-zentro guztietatik): bata kontratatutako pertsona enpresan alta eman den egunaren aurreko hiru hilabetekoa eta bestea kontratazioaren egunekoa.

Adierazitako dokumentazioa, gehienez ere, 15 egun naturaleko epean aurkeztu beharko da, aldeko ebazpena jakinarazten den egunetik aurrera zenbatzen hasita, baldin eta kontratazioa ebazpena baino lehen egin bada. Kontratazioa ebazpenaren ostean egin bada, gehienez ere, lehen aipatutako 35 egun naturaleko epea izango du kontratazioa benetan gauzatzeko eta, data horretatik, 15 egun naturaleko epea dokumentazioa aurkezteko.

Lehen ordainketari dagokion dokumentazioa Bilbao Ekintza EPELeke Enpresa Sustapenerako Arloari (enplegua eta talentua) bidaliko zaio Bilbao Ekintzaren webgunean dagoen aplikazioaren bitartez.

Bigarren ordainketa, diru-laguntzaren guztizko zenbatekoaren % 20ri dagokiona, diruz lagundutako kontratazioak indarrean jarraitzen duela egiaztatu eta gero, eta dokumentazio hau aurkeztu ostean:

- ❖ Gizarte Segurantzaren alta emanda dauden langileen txostena (ALT), langileak kontratatuta jarraitzen badu, edo kotizazio-datuen txostena (KDT), kontratazioa bukatu bada.
- ❖ Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izateari buruzko ziurtagiriak. Ez dira beharrezkoak izango lehen aurkeztu badira eta indarrean jarraitzen badute.

Dokumentazioa bidaltzeko aldia diruz lagundutako epea amaitu baino bi hilabete lehenago hasiko da, eta, orduetik, 15 egun naturaleko gehieneko epea izango dute aurkezteko.

Bigarren ordainketari dagokion dokumentazioa Bilbao Ekintzako Enpresa Sustapenerako Arloan (Enplegua eta Talentua) aurkeztu beharko da, elektronikoki, helbide elektronikoko honetara bidaliz: ayudascontratacion@bilbaoekintza.bilbao.eus. PDF formatuan aurkeztu beharko da (ez dira inolako irudi-programatan onartuko, jpg formatuan...).

Azken ordainketa, gainerako % 40koa, diruz lagundutako aldia amaitutakoan, honako hauek aurkeztu eta gero:

- ❖ Jardueraren azken memoria: Kontratatutako langileen zerrenda, kontratu-mota, kontratatu den kolektiboa, iraupena eta lanaldia, aplikatu beharreko hitzarmena, diruz lagundutako kopurua, soldata-kostuak, Gizarte Segurantzako kostuak eta kontratu-amaierako kalte-ordaina.

- ❖ Kontratutako pertsonen Gizarte Segurantzarako kuotetan ordaindutako zenbatekoen zerrenda.
- ❖ Diruz lagundutako aldiko nominak eta bankuko ordainagiriak (bakarrik onartuko dira bankuko ordainketaren justifikazioak).
- ❖ Afiliatuaren lan-bizitzaren txostena, laguntza eskatu den aldian enpresan egon dela egiaztatzeko.
- ❖ LIZ (langileen izen-zerrenda), diruz lagundutako aldiko hilabetei dagokiena.
- ❖ KLO (kotizazioen likidazio-ordainagiria) eta ordainketaren banku-ordainagiria, diruz lagundutako aldiko hilabetei dagozkienak.
- ❖ KDT. Diruz lagundutako aldiko kotizazio-datuen txostena.
- ❖ Ogasunari eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketa egunean duelako ziurtagiriak, dokumentazioa berrikusitakoan eta egiaztatutakoan, ordainketa egiten den egunerako indarrean daudenak.

Dokumentazio hori, gehienez ere, 35 egun naturaleko epean aurkeztu beharko da, diru lagundutako aldia igaro ostean.

Hirugarren ordainketari dagokion dokumentazioa Bilbao Ekintzako Enpresa Sustapenerako Arlora (Enplegua eta Talentua) bideratuko dira, elektronikoki, dokumentazioa helbide elektroniko honetara bidaliz: ayudascontratacion@bilbaoekintza.bilbao.eus . PDF formatuan aurkeztu beharko da (ez dira inolako irudi-programatan onartuko, jpg formatuan...).

Aurrekoa gorabehera, 3 hilabeterako kontratazioetarako laguntzetan, diru-laguntza bi alditan ordainduko da: lehen ordainketa (% 40) eta azken ordainketa (% 60), dagokien dokumentazioarekin.